

Euskal AEko BPG urte arteko %0,9 hazi da 2011ko lehen hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean hazkundera positiboa da, %0,3

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %0,9ko hazkundera izan du 2011ko lehen hiruhilekoan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, urtaro- eta egutegi-eraginak deskontaturik, Eustaten aurrerapen-datuen arabera. Laugarren hiruhilekoa da, jarraian, urte arteko hazkunde positiboak dituen, eta tasa hamarren batez hobe da 2010eko laugarren hiruhilekokoaren aldean. Urte artean, Espainiako ekonomia %0,7 hazi da, Espainiako bankuak aurreratutako zenbatespenaren arabera.

Euskal AEko BPG %0,3 hazi da aurreko hiruhilekoaren aldean 2011ko lehen hiruhilekoan. Datu hau aurreko hiruhilekoko baino hamarren batez hobe da, eta baita ere hamarren batez dago Espainiako ekonomiak lortutakoaren gainetik, Espainiako bankuak aurreratutako datuen arabera.

Bilakaera honen oinarrian: industria sektorearen jokaera hobe; eraikuntzaren bilakaera negatiboa; zerbitzuen bilakaera positiboa, apalagoa aurreko hiruhilekoan baino.

BPGren hazkunde-tasak (%). Euskal AE



Urtaro- eta egutegi-ondorioen datu zuzenduak
Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen aurrerapena

Enpleguaz dihardugularik, aurreko hiruhilekoaren aldeko bilakaerak negatiboa (%0,4) darrai, eta jaitsiera ere dago, apala, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Telef.: +34 -945 75 00 Faxe: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEKo Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo Hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren gaineko datu-bankua